

ATXURI´KO “MILAGRUA”

(Jazorikoa)

Emen edestuko doguna jazo zanetik ona urte asko igazi (pasar) dira.

Orduan Bilbao´k milla inguru biztanle baiño askoz geiago ez ebazan. Geroago Begoña´ri artu dautsozan zatiak ez eukozan ondiño. Abando be aske zan, erri banakoa. Beraz, Bilbao erri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezagunak ziran. Ez egoan orain dagon beste guardi municipal, naikoa ziran iru edo lau txinel (alguacil) erria zaintzeko, gabezko sereno kantari batzukaz.

Onelako erri baten aituten da erraz egin leitekela emen edestuko dogun barrabaskeria, erri guztia barre baten ainbat egunean euki ebana.

Bilbaotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, ez dakit nungo erritan il zala atso aberats bat, eta milla ogerleko batzuk itzi ebazala Bilbao´ko erren edo kojoei bananduteko, atsoa be errena izan zalako ta Bilbao´n jaioa, diru ori banandiko jakela Atxuri´n, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao´ko txiro ta gosakillen artean ikara andia eragin eban iragarki orrek, eta egun batzuetan ez zan izan beste izketagairik auxe baiño.

Eldu zan eguna. Atxuri´ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganean tintontzia ta ingiak, iru jezarleku, bazterrean zorro batzuk zerez edo arez beterik, eta iru edo lau gizon, piperra baiño serioago, alkarregaz izketa ixiltsuan, atarian batera ta bestera ibilli ebiltzala eperdi-ganean eskuak alkartuta.

Goitzxo asi ziran kojoak agertzen kalean. Geienak etozan makulu bigaz ta anka bata dingiliz; ba ziran etozanak eperdi-ganean erdi-tatarrez; baina burtxoietan (burdi-oietan) etozanak be iñol bultzaka eroanda. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita egoan ordurako, kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Balkoietan eta leioetan egoan jenteak arrituta esaten eban: Nork uste izango eban Bilbao´n onenbeste kojo egoanik?”

Atarian egozan gizon serioak adirazo eutsien kalekoei diruak gertu ipiñi bear ebezala ta orregaitik pizkaten atea itxiko ebela, ta asko belutu (tardar) barik, laster asiko zala diru-banandutea.

Itxi eben atea ba, ta gerotxoago barriro zabaldu zanean, tximistea baiño ariñago urten zan andik, zer uste dozue?. Zezentxu bat!!

Nok azaldu an izan zan usubilloa?. Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori bota, ta ango ariñeketea kojoak izan arren! Egundoko ariñen, miñuto bat baiño lenago, garbitu zan kalea, makillaz ta burtxoez beterik gesditu zala. Mirragrua izan zan. Zezena agertu zan orduko kojo guztiak osasunera etorri ziran.

Balkoi-leiotako jentea, barrearen barreaz tripa guztia minduta geratu ziran.

Deabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka asten izan jakuz berau aitatu dogun aldi guztietan.

Amaika gizon gogaldi (humor) ederreko jaio ta bizi izan zan lenagoko Bilbao ´n!

Irakurlea: Karmele Aurtenetxe Elorriaga -- Habe ´ko Irakaslea